

## ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE ALAVA

### Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

4.781

**42/2002 FORU DEKRETUA**, uztailaren 16ko Diputatuen Kontseiluarena. Horren bitartez, Arabako Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 110.1 artikuluan zehaztutako helburu eta organoetarako eta administrazio publikoek beren funtzioak egin ditzaten zerga informazioa emateari buruzko araudia onartzen da.

1981eko maiatzaren 31ko Arabako Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko Bigarren Xedapen Gehigarriak jasotzen du administrazio publikoei, baliabide telematiko eta informatikoen bitartez, zergei buruzko informazioa ematea, haiek dituzten funtzioetarako. Legezko agindu horretan, dagokion administrazioari modu zuzenean informazioa emateko aukera foru dekretu bidez zehaztutako baldintza eta bermeei lotzen zaie, ezartzen den lankidetzaren esparruan. Era berean, foru dekretu horretan informazio horniketa arautu ahal izango dela aurreikusten da, Arabako Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 110.1 artikuluan araututako kasuetan.

Informazioz hornitzeko kasu bataren eta bestearen arteko aldea honakoa da: lehenengoak interesatuak baimentzeko beharra du; bigarrenak, ostera, ez du baimen hori behar, Foru Arauan berariaz adierazten den moduan, zehazten diren jasotzaile eta helburuetarako.

Foru dekretu honen bitartez lege horretan zehaztutakoa betetzen da; Zerga Administrazioak beste administrazio publiko batzuen alde eman beharko duen informazio horniduretarako kasuak, baldintzak eta bermeak ezartzen dira, eta Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 110.1. artikuluan jasotako kasuak arautzen dira.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak gai horri buruz emandako txostena eta Aholku Batzordeak emandakoa ikusi ditugu.

Beraz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta gero,

XEDATU DUT:

#### 1. artikulua.- Aplikazio eremua

Foru dekretu honek 1981eko maiatzaren 31ko Arabako Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko Bigarren Xedapen Gehigarria betetzen du, eta Zerga Administrazioak zergei buruzko informazioaz hornitzen duenean aplikatuko da jarraian azaltzen diren helburuekin:

1. Administrazio publikoei esleitutako funtzioak gauzatzea.

2. Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 110.1. artikuluan zehaztutako lagapen-hartzaileen alde xedatzen diren helburuak betetzea.

**2. artikulua.- Administrazio publikoei esleitutako funtzioak gauzatzeko erabiliko den zergei buruzko informazioa ematea.**

1. Informazioaren jasotzaileak administrazio publikoak badira, artikuluko zehaztutakoa bete beharko da, betiere, Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 110.1. artikuluan aurreikusitako helburuak ez bestelakoak baditu.

2. Informazio eskabide guztietan informazioaren gai diren interesatuak identifikatzeko datuak eman beharko dira, eta informazio horrez hornitzearen helburua adierazi beharko da, bai eta Administrazio eskatzaileak dituen zereginetarako beharrezkotzat jotzen den edukaren hornikuntzaren helburua ere. Identifikatzeko datu horiek izena eta bi deiturak izango dira pertsona fisikoentzat, eta erakunde juridikoentzat, baltzuaren izena; bi kasuetan, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia beharko da.

### Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

4.781

**DECRETO FORAL 42/2002**, del Consejo de Diputados de 16 de julio, que aprueba la normativa sobre suministro de información tributaria a las Administraciones Públicas para el desarrollo de sus funciones, así como para las finalidades y órganos previstos en el artículo 110.1 de la Norma Foral General Tributaria de Álava.

La Disposición Adicional Segunda de la Norma Foral General Tributaria de Álava, de 31 de mayo de 1981, contempla el suministro de información tributaria por medios telemáticos e informáticos a favor de las Administraciones Públicas para el desarrollo de las funciones que tengan encomendadas. En dicho precepto legal, la posibilidad de suministrar información de forma directa a la Administración de que se trate, se supedita a los términos y garantías que se determinen mediante Decreto Foral y en el marco de colaboración que se establezca. Igualmente se prevé que, en dicho Decreto Foral, se pueda regular el suministro de información en los casos previstos en el artículo 110.1 de la Norma Foral General Tributaria de Álava.

La diferencia entre uno y otro supuesto de suministro de información estriba en la necesidad, respecto al primero, de que se autorice el mismo por el interesado, en tanto que en el segundo supuesto no se precisa dicha autorización por cuanto el suministro de información está expresamente previsto en la Norma Foral a favor de sus destinatarios y para los fines especificados en la misma.

Por el presente Decreto Foral se da cumplimiento a la previsión legal citada, estableciendo los supuestos, condiciones y garantías a los que habrá de someterse el suministro de información que haya de efectuar la Administración Tributaria a favor de otras Administraciones Públicas, y regulando los supuestos contemplados en el artículo 110.1 de la Norma Foral General Tributaria.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

#### Artículo 1.- Ámbito de aplicación

El presente Decreto Foral se dicta en cumplimiento de la Disposición Adicional Segunda de la Norma Foral General Tributaria de Álava de 31 de mayo de 1981, siendo de aplicación al suministro de información de carácter tributario que pueda efectuar la Administración Tributaria y que tenga por objeto:

1º. El desarrollo de las funciones atribuidas a las distintas Administraciones Públicas.

2º. El cumplimiento de los fines contemplados en el artículo 110.1 de la Norma Foral General Tributaria, a favor de los cesionarios previstos en dicho precepto.

**Artículo 2.- Suministro de información de carácter tributario para el desarrollo de las funciones atribuidas a las distintas Administraciones Públicas.**

1. Se regirá por el presente artículo el suministro de información que tenga por destinatarias a las distintas Administraciones Públicas cuando el mismo no tenga por objeto las finalidades previstas en el artículo 110.1 de la Norma Foral General Tributaria.

2. En toda petición de información habrán de especificarse los datos identificativos de los interesados a que se refiera la información recabada y detallarse tanto la finalidad de su suministro como el contenido que se estima necesario para el cumplimiento de las funciones que tenga encomendadas la Administración solicitante. Los citados datos identificativos serán el nombre y dos apellidos en las personas físicas, y la denominación social en las entidades jurídicas y, en ambos casos, el Número de Identificación Fiscal.

3. Zerga informazioa eskatzen duen administrazioak Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailera bidaliko du eskabide egokia.

4. Zerga informazioaren eskabidean, artikuluko honetako 2. idatz zatian zehaztutako gain, han azaltzen diren interesatuek datuak administrazio eskatzaileari ematea berariaz baimendu dutela egiaz-tatu beharko da.

Baimen horri dagokionez, administrazio eskatzaileak kontuan izan beharko du honakoa:

1. Baimenak interesatuak parte hartzen duen prozedurari buruzkoa izan beharko du, edota, bereziki, gauzatzeko, eskatutako zerga informazioa behar duten eta hari eragin diezaioketen funtzioetarako.

2. Ez dira onartuko administrazio eskatzaileak bete ditzakeen edozein prozedura edo funtzioetarako baimen orokorrak.

3. Prozeduren ebazpena edota funtzioak gauzatea ezingo da baimen horretara baldintzatu, baldin eta, eskatzen den kasuetan, zuzenbidean balioduna den beste bideren batez egiazta badaiteke.

4. Ez da interesatuari buruzko daturik emango, baldin eta hark hasiera batean emandako baimena ezeztatzen bada.

5. Zerga Administrazioak eskatzen zaizkion datuak ez ematea erabaki dezake, baldin eta galdatutako informazioa ez badator bat artikuluko honetako aurreko idatz zatietan zehaztutakoarekin, foru dekretu honetako 6. artikuluko datu hornidurako printzipio eta arauak hauts baditzake, edota Foru Dekretuko 8.1. artikuluan zehaztutako bermerik ez badago. Ogasun zuzendariak erabakiko du ukatze hori, eta horren arrazoia adieraziko du.

6. Informazioa ematea egoki denean, informatika edo telematika baliabideen bitartez betetzeko ahaleginak egingo dira, betiere, Zerga Administrazioaren eta lagapen-hartzaile den administrazioaren baliabide teknikoak kontuan izanda. Bi administrazio horien artean kasu bakoitzerako egokien dena erabaki ahalko dute.

### **3. artikulua.- Zergen gaineko Foru Arau Orokorreko 110.1. artikuluan jasotako kasuetan informazioa ematea.**

1. Artikulu honek arautuko du Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 110.1. artikuluan zehaztutako helburuetarako eta organo, agintari edota erakundeentzako zerga informazioa ematea.

2. Zerga informazioa eskatzen duen organo, agintari edo erakundeak Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailera bidaliko du eskabide egokia.

3. Informazioa eskatzen duen organo, agintari edo erakundeak eskatutako informazioari dagozkion pertsona fisiko edo juridikoen identifikatze datuak emango ditu; era berean, zein helburuetarako erabiliko diren zehaztu beharko du, Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 110.1. artikuluan baimendutako hornidura kasuekin bat. Berebat, hornidura justifikatzen duen helbururako beharrezkoa den informazioa zehaztu beharko da.

4. Zerga Administrazioak eskatzen zaizkion datuak ez ematea edo mugatzea erabaki dezake, baldin eta galdatutako informazioa ez badator bat artikuluko honetako aurreko idatz zatietan zehaztutakoarekin, foru dekretu honetako 6. artikuluko zerga informazioaren hornidurako printzipio eta arauak hauts baditzake, edota Foru Dekretuko 8.1. artikuluan zehaztutako bermerik ez badago. Ogasun zuzendariak erabakiko du ukatze hori, eta horren arrazoia adieraziko du.

5. Informazioa informatika edo telematika baliabideen bitartez emateko ahaleginak egingo dira, betiere, Zerga Administrazioaren eta lagapen-hartzaile den erakundearen baliabide teknikoak kontuan izanda. Bi administrazio horien artean kasu bakoitzerako egokien dena erabaki ahalko dute.

### **4. artikulua.- Lankidetzarako hitzarmenak**

1. Zerga Administrazioak lankidetzara hitzarmenak egin ahalko ditu zerga informazioaren lagapen-hartzaileak izan daitezkeen administrazio publikoekin, agintariekin nahiz erakundeekin, foru dekretu honetako 2 eta 3. artikuluetan zehaztutakoaren arabera

2. Bidezkoa izango da lankidetzara hitzarmenak egitea baldin eta datu hornidura aldizka edota jarraian egin behar bada, eta datu horiek interesatu ugari buruzkoak badira edota datu horiek askori eragiten badiete.

3. La Administración que recabe la información tributaria dirigirá la correspondiente solicitud al Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava.

4. En la solicitud de información tributaria se certificará, además de los extremos indicados en el apartado 2 de este artículo, que los interesados a los que se refiera aquella han autorizado expresamente el suministro de datos a la Administración solicitante.

Respecto a dicha autorización, la Administración solicitante tendrá en cuenta lo siguiente:

1º. La autorización habrá de referirse al procedimiento en el que participe el interesado o para el ejercicio de las funciones que, en particular, puedan afectarle y para cuyo desarrollo se solicita la información de carácter tributario.

2º. No se admitirán autorizaciones genéricas para cualesquiera procedimientos o funciones que pueda desarrollar la Administración solicitante.

3º. No podrá condicionarse la resolución de los procedimientos o el ejercicio de las funciones al otorgamiento de dicha autorización, cuando el cumplimiento de los requisitos, en su caso exigidos, pueda acreditarse por otro medio válido en derecho.

4º. Se abstendrá de solicitar datos referidos al interesado si éste hubiera revocado la autorización inicialmente prestada.

5. La Administración Tributaria podrá denegar el suministro de datos solicitado cuando la información recabada no se adecue a lo previsto en los apartados precedentes del presente artículo, pueda vulnerar los principios y reglas de suministro de datos a que se refiere el artículo 6 del presente Decreto Foral, o no existan las garantías en su caso previstas en el artículo 8.1 del mismo. Dicha denegación se acordará por el Director de Hacienda especificándose la causa de la referida denegación.

6. Cuando el suministro de información sea procedente, se procurará su cumplimentación por medios informáticos o telemáticos atendiendo a las posibilidades técnicas tanto de la Administración Tributaria como de la Administración cesionaria, que podrán convenir en cada caso concreto lo que estimen más conveniente.

### **Artículo 3.- Suministro de información en los supuestos contemplados en el artículo 110.1 de la Norma Foral General Tributaria.**

1. Se regirá por el presente artículo el suministro de información tributaria para las finalidades y a los órganos, autoridades o entidades previstos, en cada caso, por el artículo 110.1 de la Norma Foral General Tributaria.

2. El órgano, autoridad o entidad que recabe el suministro de información dirigirá la correspondiente petición al Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava.

3. El órgano, autoridad o entidad que solicite la información especificará los datos identificativos de las personas físicas o jurídicas a que se refiera la información recabada, indicando la finalidad para la que serán utilizados, de conformidad con los supuestos de suministro autorizados por el artículo 110.1 de la Norma Foral General Tributaria. Igualmente se concretará la información que se entiende necesaria para atender la finalidad que justifica el suministro.

4. La Administración Tributaria podrá denegar o limitar el suministro de datos solicitado cuando la información recabada no se adecue a lo previsto en los apartados precedentes del presente artículo, pueda vulnerar los principios y reglas de suministro de información tributaria a que se refiere el artículo 6 del presente Decreto Foral, o no existieran las garantías previstas en el artículo 8.1 del mismo. Dicha denegación se acordará por el Director de Hacienda, especificándose la causa de la referida denegación.

5. El suministro de información se procurará cumplimentar por medios informáticos o telemáticos atendiendo a las posibilidades técnicas tanto de la Administración Tributaria como de la entidad cesionaria, que podrán convenir en cada caso concreto lo que estimen más conveniente.

### **Artículo 4.- Convenios de colaboración**

1. La Administración Tributaria podrá celebrar convenios de colaboración con las Administraciones Públicas, autoridades o entidades, que puedan ser cesionarias de información de carácter tributario en virtud de lo dispuesto en los artículos 2 y 3 del presente Decreto Foral.

2. Procederá la formalización de convenios de colaboración cuando el suministro de datos haya de efectuarse periódicamente o de forma continuada en el tiempo y dichos datos se refieran a un elevado número de interesados o afectados por los mismos.

3. Hitzarmen horietan honakoak zehaztu beharko dira: informazio horniduraren helburua; zein helbururekin egiten den; jasotzaileak ahalmenak edota eskatutako informazioa arrazoitzen duten funtzioak gauzatzeko duen eskumena; hornidura horren aldizkakotasuna; eta zein modutan gauzatu den. Era berean, hitzarmenaren iraupea adieraziko da, eta hala badagokio, hura berritzeko edo luzatzeko baldintzak.

Foru dekretu honetako 2. artikuluan zehaztutako horniduretan, aurrekoetz gain, interesatuek aldeztu aurretik lagapen-hartzaile den administrazioari baimena ematea beharrezko dela adieraziko da. Baimenik gabe, administrazioak ezingo du haiei buruzko informaziorik eskatu.

4. Lankidetzeta hitzarmenetan zehaztu egin beharko dira informazio hornidurak izango dituen prozedura, eskumenak eta bermeak. Administrazio publiko batekin hitzarmena sinatzen denean, haren menpeko administrazio organoek bakarrik erabili ahal izango dituzte jasotako datu guztiak. Hala ere, berariaz aurreikusita badago, datuen azken jasotzailea administrazio publiko horren menpeko organismo nahiz erakunde bat izango ahalko da, emandako datuak erabiltzeko funtzioak egin edota prozedurak bideratu behar dituenak.

5. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuari dagokio artikuluan honetan zehazten diren lankidetzeta hitzarmenak sinatzea.

6. Edonola ere, ezartzen diren baldintza eta klausulek foru dekretu honetako printzipioen arabera izan beharko dute.

#### **5. artikulua.- Zergei buruzko datu baseetan kontsultarako sartzea**

1. Salbuespenetan, zerga informazioaren lagapen-hartzaileak informazio horretara sartu ahalko du, Zerga Administrazioaren datu baseetara kontsulta egiteko zuzenean sartuta.

2. Datu baseetara sartzeko, Foru Ogasunaren terminalak erabili ahalko dira, edota lagapen-hartzailearekiko konexio telematikoak; horretarako, aldeztu aurretik, informazio eskuragarria konfiguratu egin beharko da.

3. Datuen kontrola eta segurtasuna hurrengoek arautuko dute, hala nola: abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak; Datu Pertsonalak dituzten Fitxategi Automatizatuen Segurtasun Neurriek buruzko Araudiak, ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuak onartuak; eta Arabako Foru Aldundiak segurtasunari buruz hura betetzeko onartzen duen dokumentuak.

4. Datu baseetarako sarbideetan, jasota geratuko dira erabiltzailearen nortasuna, ikusten duen informazioa eta bilaketaren arrazoia. Horretarako, Zerga Administrazioak informatika ezarpenak diseinatuko ditu, eta hala, erregistratuta geratuko dira zehaztasun horiek.

#### **6. artikulua.- Zerga informazioa emateari aplikatzekoak zaizkion printzipio eta arauak**

Foru dekretu honen esparruan emandako zerga informazioetan honako printzipio eta arauak beteko dira:

1. Emandako datuak lagapen-hartzailearen funtzio eta eskumenera moldatzea.

2. Datuak ematea arrazoitzen duten helburuetarako informazioak duen garrantzia eta erabilgarritasuna.

3. Emandako datuen eta haiek eskatzeko dauden helburuen arteko proportzionaltasuna.

4. Erabilitako igorpen eta sarbide baliabideen segurtasuna.

5. Eraginkortasuna eta kostuak minimizatzea.

6. Datuak eskatzeko arrazoitzen diren helburuetara zehatz-mehatz lotzea; bestelakoetan, zerga informazioa ezingo da erabili interesatuaren edo eragindakoaren aurka.

7. Emandako datuak besterenezinak dira, eta jasotzaileak ezin dizkio hirugarrengoei laga, hitzarmenetan berariaz zehaztutako kasuak salbuespen.

8. Lagapen-hartzaileak ezingo ditu gerora datuak tratatu, eragindakoak baimentzen badio edota legezko baimena badu salbu.

#### **7. artikulua.- Datuen izaera**

Ematen diren datuak zergadunek eta informazioa ematera behar-tuta dauden gainerakoek aitortu dituztenak dira. Oro har, ez dute inolako egiaztatzerik izan automatizatu aurretik.

3. En dichos convenios se especificará el objeto del suministro de información, la finalidad para la que se efectúa, la competencia del destinatario para el ejercicio de las facultades o el desarrollo de las funciones que justifican la información que se recabe, la periodicidad de dicho suministro y la forma en que se materialice. Asimismo se indicará su duración y, en su caso, las condiciones de su renovación o prórroga.

En los supuestos de suministro a que se refiere el artículo 2 del presente Decreto Foral, igualmente se hará constar la necesidad de la previa autorización de los interesados a la Administración cesionaria, sin la cual dicha Administración se abstendrá de cursar peticiones de información referidas a los mismos.

4. En los convenios de colaboración deberá especificarse el procedimiento, las competencias y las garantías por las que habrá de regirse el suministro de información. Suscrito un Convenio con una Administración Pública, sólo los órganos administrativos dependientes de la misma podrán hacer uso de los datos recibidos. No obstante, si así se previera expresamente, el destinatario final de los datos podrá ser un organismo o entidad dependiente de dicha Administración Pública, que haya de ejercer las funciones o instruir los procedimientos para los que se suministren aquéllos.

5. Corresponde al Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos la facultad de suscribir los Convenios de colaboración a que se refiere el presente artículo.

6. En todo caso las condiciones y cláusulas que se establezcan habrán de regirse por los principios contenidos en el presente Decreto Foral.

#### **Artículo 5.- Acceso mediante consulta a bases de datos tributarios**

1. En casos excepcionales el cesionario de información tributaria podrá obtener la misma mediante consulta directa a las bases de datos de la Administración Tributaria.

2. El acceso podrá efectuarse a través del uso de terminales de la Hacienda Foral o mediante las correspondientes conexiones telemáticas con el cesionario, previa configuración, en su caso, de la información accesible.

3. El control y seguridad de los datos se regirá por lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, en el Reglamento de Medidas de Seguridad de los Ficheros Automatizados que Contengan Datos de Carácter Personal, aprobado por Real Decreto 994/1999, de 11 de junio, y en el documento de seguridad que la Diputación Foral de Álava apruebe en cumplimiento del mismo.

4. El acceso a las bases de datos se efectuará de modo que quede constancia de la identidad del usuario, de la información a que se accede y de la motivación de la consulta, a cuyo fin la Administración Tributaria diseñará sus aplicaciones informáticas de forma que queden registrados los accesos con el detalle señalado.

#### **Artículo 6.- Principios y reglas aplicables al suministro de información tributaria**

El suministro de información tributaria efectuado en el ámbito de aplicación de este Decreto Foral se regirá por los siguientes principios y reglas:

1º Adecuación de los datos suministrados a las funciones y competencias del cesionario.

2º. Relevancia y utilidad de la información para los fines que justifican el suministro.

3º. Proporcionalidad entre los datos suministrados y los fines para los que se solicitan.

4º. Seguridad de los medios de transmisión y acceso empleados.

5º. Eficiencia y minimización de costes.

6º. Estricta afectación a los fines que justifican y para los que se solicitan los datos, sin que la información tributaria pueda utilizarse en perjuicio del interesado o afectado en ningún otro caso.

7º. Intransferibilidad de los datos suministrados, sin que el destinatario pueda volver a cederlos a terceros, salvo en los casos expresamente previstos en los Convenios.

8º. Prohibición del tratamiento ulterior de datos por el cesionario, salvo consentimiento del afectado o autorización legal.

#### **Artículo 7.- Naturaleza de los datos**

Los datos suministrados son los declarados por los contribuyentes y demás obligados a suministrar información, sin que, con carácter general, hayan sido sometidos a actividad alguna de verificación previa a su automatización.

Hala ere, Zerga Administrazioak datu horiek egiaztatu baditu, datu egiaztatutak emango dira.

Zerga Administrazioak emandako datuen izaera eta edukia zehaztea edo argitzea eskatu ahal izango du.

#### 8. artikulua.- Berme espezifikokoak

1. Eskatutako informazioaren kantitateak, luzerak edota haren edukiaren garrantziak eta informazioa ematearen aldizkakotasunak hala eskatzen badute, Zerga Administrazioak, emandako datuak modu egokian erabiliko direla bermatuko duten neurriak hartuko ditu. Neurri horiek honakoak izan daitezke:

- Zerga Administrazioaren eta lagapen-hartzailea den erakundearen, agintariaren edota instituzioaren ordezkariak osatuko dituzten batzorde mistoak eratzea, emandako informazioa modu egokian erabiliko dela bermatuko dutenak; horrez gain, beste funtzio batzuk ere izan ditzakete.

- Lagapen-hartzaileak Zerga Administrazioak egingo dituen egiaztatze jarduerak onartzea, utzitako informazioa modu egokian lortu eta erabiltzen dela egiaztatzearen, eta aplikatzekoak diren arau edo hitzarmeneko baldintzak betetzen direla egiaztatzearen.

2. Emandako datuen edo informazioaren berri duten agintari eta funtzionario guztiek haiei buruzko isiltasun zorrotz eta osoa gorde beharko dute. Informazio hori behar ez bezala erabili edo lortzeko dakartzan erantzukizun penal, administratibo eta zibilak gorabehera, eta Datu Pertsonalak Babesten dituen Agentziari edota organo egokiei dagozkien funtzioak gorabehera, Zerga Administrazioak datuetarako sarbidea edota haiek ematea uztaiz edo mugatu ahal izango du baldin haien erabileran irregulartasunak atzematen baditu, edota ondorio horietarako foru dekretu honetako 6 eta 8.1. artikuluetan ezarritako printzipio, arau eta bermeak hausten badira.

3. Zerga Administrazioak ez badu argi informazioa eskatzen duen organoaren eskumena, ofizioa bideratuko zaio administrazioaren nahiz haren menpe den organoaren zuzendariari, eskumen hori egiaztatu dezan edota, hala badagokio, egindako eskaria berrets dezan.

4. Zerga Administrazioak zalantza baditu eskatutako datuak emateari zuzenbidez egokia izatearen gainean, txostena eskatuko dio Arabako Foru Aldundiko Lege Aholkularitza Zerbitzuari.

#### 9. artikulua.- Informazioa ematearen ondorioak

1. Arabako Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko Bigarren Xedapen Gehigarriko bigarren paragrafoan zehaztutakoarekin bat, administrazio publikoek beren funtzioetarako, foru dekretu honetan zehaztutako bideetatik, behar duten zerga informazioa lortzen duten heinean, interesdunei ez zaie eskatuko Zerga Administrazioaren ziurtagiriak banan-banan aurkez ditzaten, ez eta, beren zerga aitortpenen originala, kopia edo ziurtagiria aurkez dezaten ere.

2. Foru dekretu honetan arautzen den zerga informazioa emateak ez du beste eraginik izango, eman ziren helburu edo xedeetatik eratorritakoez gain, edota hala badagokio, artikuluko 1. idatz zatian azaltzen den ziurtagiria edo aitortpena ordeztu dutenez gain. Ondorioz, ez da sortuko emandako datuen interesdunen edota haiek eragindakoen aldeko eskubiderik ez eskubide itxaropenik; era berean, informazioa lortzeko egin ziren prozedurek izan ditzaketen eskubide edo betebeharren preskripzioa ez da bertan behera utziko. Berebat, emandako informazioak ez die eragingo emandako datuak egiaztatzearen edo zergen aldetik aztertzearen ondorioei edota geroago haiek izan ditzaketen aldaketek.

#### AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria/Gasteizen, 2002ko uztailaren 16an.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBÁ.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

No obstante, cuando los citados datos hubieran sido comprobados por la Administración Tributaria se facilitarán los datos comprobados.

Por la Administración Tributaria podrán efectuarse especificaciones o aclaraciones sobre la naturaleza y contenido de los datos suministrados.

#### Artículo 8.- Garantías específicas

1. Cuando el volumen de información solicitada, la amplitud o trascendencia de su contenido y la periodicidad de su suministro así lo aconsejen, por la Administración Tributaria se adoptarán las medidas que permitan garantizar un adecuado uso de los datos suministrados, que podrán consistir en:

- La constitución de comisiones mixtas integradas por representantes de la Administración Tributaria y de la entidad, autoridad o institución cesionaria que velen por el adecuado uso de la información suministrada, sin perjuicio de otras funciones que se le pudieran asignar.

- La aceptación por el cesionario del sometimiento a actuaciones de comprobación a cargo de la Administración Tributaria, al objeto de verificar la adecuada obtención y utilización de la información cedida y de las condiciones normativas o convencionales que fueran de aplicación.

2. Cuantas autoridades y funcionarios tengan conocimiento de los datos o información suministrados estarán obligados al más estricto y completo sigilo respecto de ellos. Con independencia de las responsabilidades penales, administrativas y civiles en que pudiera incurrirse por el inadecuado uso o acceso a dicha información y sin perjuicio de las funciones que corresponden a la Agencia de Protección de Datos o a los órganos correspondientes, la Administración Tributaria podrá suspender o limitar el acceso o el suministro de datos cuando advirtiere anomalías o irregularidades en su utilización, así como si se incumplieran los principios, reglas y garantías establecidos en los artículos 6 y 8.1 del presente Decreto Foral, o convenidos al efecto.

3. Si no constara a la Administración Tributaria la competencia del órgano que solicita la información tributaria, se cursará oficio al órgano directivo de la Administración o entidad del que aquél dependa, al objeto de que certifique dicha competencia o, en su caso, ratifique la solicitud cursada.

4. Cuando surgieran dudas a la Administración Tributaria sobre la procedencia en derecho del suministro de datos solicitada, se pedirá informe al Servicio de Asesoría Jurídica de la Diputación Foral de Álava.

#### Artículo 9.- Efectos del suministro de información

1. De conformidad con lo dispuesto en el párrafo segundo de la Disposición Adicional Segunda de la Norma Foral General Tributaria de Álava, en la medida en que las Administraciones Públicas puedan disponer de la información de carácter tributario que precisen para el desarrollo de sus funciones mediante los cauces previstos en el presente Decreto Foral, no se exigirá a los interesados que aporten individualmente certificaciones expedidas por la Administración Tributaria, ni la presentación, en original, copia o certificación, de sus declaraciones tributarias.

2. El suministro de información tributaria regulado en el presente Decreto Foral no tendrá otros efectos que los derivados del objeto y finalidad para los que fueron suministrados, o los sustitutivos, en su caso, de la certificación o declaración a que se refiere el apartado 1 del presente artículo. En consecuencia, no originará derechos ni expectativas de derechos a favor de los interesados o afectados por la información suministrada, ni interrumpirá la prescripción de los derechos u obligaciones a que puedan referirse los procedimientos para los que se obtuvo aquélla. De igual modo, la información suministrada no afectará a lo que pudiera resultar de las actuaciones de comprobación o investigación tributaria o de la ulterior modificación de los datos suministrados.

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, 16 de julio de 2002.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBÁ.- El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.